

## EUSKOTRENEK, APIRILAREN 14TIK AURRERA, TOPOKO ETA GASTEIZKO TRANBIEN ZERBITZUAK HEDATUKO DITU

**Topoan zein Gasteizko Tranbian errefortzu zerbitzuak berreskuratu egingo dira egunean aurreikusitako jenderik gehien dauden uneetan.**

COVID-19a dela eta, alarma egoeran zehar abian jarritako zenbait neurriei eskaintzaren egokitze prozesuan, Euskotrenek datorren asteartetik, apirilaren 14tik aurrera Topoaren (Lasarte Oria eta Irun Ficoba artean) eta Gasteizko Tranbiaren zerbitzuak murriztuko ditu.

Asteartetik aurrera bidaiari kopuru handiagoa aurreikusten denean errefortzu zerbitzuak eskainiko dira eguneko une jakin batzuetan. Halere, Topoan zein Gasteizko tranbian ordutegia murriztua izaten jarraituko du, Euskotrenek operatutako gainerako zerbitzuetan bezala: Bilboko tranbia, Larreinetako funikularra, Bizkaiko eta Gipuzkoako autobusak eta Usansoloko Ospitalera eta Zamudioko Teknologia Parkera doan tren-bus garraio loturak.

COVID-19a eusteko ezarritako neurrien artean, Amarako (Donostia), Durangoko, Gernikako eta Zazpikaleakeko (Bilbo) Bezero Arreta Bulegoetan arreta presentziala bertan behera geratu da, jakinarazpen berrira arte itxita daudelako. Erabiltzaileek Euskotrenekin komunikatu nahi izanez gero, honako kanalak dituzte: 944 333 333 telefonoa; BABeko posta elektronikoak (oacd@euskotren.eus // oacz@euskotren.eus // oacd@euskotren.eus // oacger@euskotren.eus); kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egin daitezkeen web orrialdea [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus); twitterra, @euskotrenEJGV; eta app ofiziala.

Era berean, Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca (ETS) eta Euskotren trenetako eta tranbietako azpiegitura desberdinetan intentsitate handiko garbitasun lanak egiten ari dira, eta baita garraio publikoko zerbitzu desberdinen material mugikorreko parkean ere.

Igorpen data: 2020-04-09



EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIEGITURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS